

Ozono geruza, behar baino arinago ahantzarazi nahi den arazoa?

IRAILEKO LEHEN ASTEAN, hainbat telebista katetako albistegietan, aurten ozono geruzak ia kalterik jasan ez duela esateaz gain, ozonoaren krisia amaitzear zegoela adierazi zuten.

Entzundakoak asko harritu ninduen. Izan ere, ozono geruzaren unerik kritikoenak irailaren bigarren hamabostaldian izaten dira. Bestalde, urtebetez datu onak izateak baliorik gabe uzten du, besterik gabe, 30 urtean neurtutako datu-segida?


Orain arte NASAk publiko egindako iraileko datuetan ez da baieztatzen irail hasieran hainbat telebista katek azaldutakoa; are gehiago, iraileko datuak azken 30 urteotan neurtutako batez bestekoak baino txarragoak direla esan daiteke.

Joan den mendeko 80ko hamarkadan agerian geratu zen ozonoaren krisia: hainbat ikerlarik atzeman zuten Antartikan, negutik udaberrira igarotzean,

ozono geruzak oso behera egiten zuela. Hurrengo urteetan baieztatzen zen jaitsieraren erantzule nagusiak gizakiak emititutako klorofluorokarbonatuak (CFC) zirela. Zorionez berehala debekatu zituzten chunka urteko iraupena duten CFCak, baina egia esan oso aurreikuspen katastrofistak zeuden hurrengo urteetarako. Mende honetako lehen hamarkadan, urtez urte Antartikan neurtutako datuak txarrak izan dira ere. Azken bost urteotakoak, egia, ez dira hain txarrak izan, baina onak ere ez.

Abuztu amaierako eta irail hasierako datuak erabili dituzte albistegietan ozonoaren galera

iraganeko kontua dela esateko, baina ikuspuntu zientifikotik urte asko igaro beharko dira hori ziurtasunez baieztatzeko. Nork du interesa eta presa ozonoarena ahazteko, edota azken hamar urteotan Lurreko tenperaturak ez direla igo plazaratzeko? Badirudi batzuek bidea libre behar dutela garapen ekonomikoaren ize-nean edozer egiteko, orain arte Lurrari sortu dizkiogun arazoak ñimiñoak direla justifikatuz. ■



NASA



JASON AUCH- CC BY

Azken bost urteetan Antartikan jasotako datuak ez dira izan hain txarrak, baina onak ere ez.



2014ko Nobel sari alternatiboak banatu dituzte

Urtero aipatzen ditugu sail honetan Ig Nobel sari bitxiak. Aurten ere ikerketa txundigarrien berri izan dugu, hala nola, hirugiarrak odoljarioak gelditzeko balio duela, umeen gorotzekin fueta prestatu daitekeela edo zenbateko mina sentitzen den eskua laser gogor batez joz gero.

ttiki.com/81905

(Euskaraz)

Minaren aurkako molekulak Afrikako nekazari eta animalien kaka eta gorotzetan?

Orain urtebete, Grenobleko Inserm erakundeko ikerlari talde batek minari aurre egiteko balio zezaketen molekulak aurkitu zituen Afrikako sasi batzuen sustrietan. Berriki egindako beste ikerketa baten arabera, molekula horiek Afrikako nekazarien eta animalien txizaren eta gorotzen ondorioa dira.

ttiki.com/81986

(Frantsesez)

Ilargiaren barne geruza bat bero omen dago

Planetak, sateliteak eta bestelako astroak sortzean bero handia sortzen da, baina denboraz hoztu egiten dira. Hala ere, batzuetan beroa kanpoko faktoreen eraginez mantentzen da, eta hori omen da Ilargiari gertatu zaiona; hain zuzen ere, Lurraren grabitateak eragiten du Ilargiaren barnean beroa mantentzea.

ttiki.com/81987

(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16